



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko urriaren 25a. 45. zenbakia. Dohain banatzen da.

GURPIL
GAINEKO
ETXEA



**EUSKARAREN ERABILERARI
ETA SOZIOLINGUISTIKARI
BURUZKO
MINTEGI-IKASTAROA**

- ✓ Euskara Historian zehar: bere galeraren arrazoiak
- ✓ Hizkuntza ezagutzetik hizkuntza erabiltzera: iraganbidea
- ✓ Hizkuntzaren erabilera finkatzeko faktoreak
- ✓ Euskararen erabileraren normalkuntza: definizioak, plangintzak, ikuspegiak, jakabideak...

Iraupena: 24 ordu.

Noiz: azaroaren 22-tik urtarrillaren 31-ra, ostiraletan.


Tokia: zehazteke.

Ordua: arratsaldeko 17:00-etatik 20:00-etara.

Matrikulatzeko epea: arazoak 15

Informazio gehiago 30 07 33 telefono zenbakira deituz.

EUSKARA BIHAR



ANTOLATZAILE



**KULTUR
BAZKUNA**

LAGUNTZAILE



Gipuzkoako
Foru Aldundiko
Kultura eta
Euskara
Departamendua

— Euskararen muga gaur egun
- - - Euskararen muga 1935ean
— Euskararen muga duela mende bat



295 BAZKIDE BEHAR DITUGU

Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide izan nahi baduzu, bete ezazu, mesedez, behean datorren eskaera-orria eta bidali edo eraman egoitza orokorrera (Dr. Huizi kalea, 15-1). Bazkide den ezagunik baduzu, nahi izanda, hari emaiozu, eta berak helaraziko digu.

NIK ERE BAZKIDE IZAN NAHI DUT

DEITURAK.....IZENA.....
 HELBIDEA.....HERRIA.....POSTA KODEA.....
 ☎.....JAIOTERRIA.....JAIOTEGUNA.....
 PROBINTZIA.....N. A. zkia:.....
 BANKU EDO AURREZKI KUTXA.....
 KONTU KORRENTEAREN ZENBAKIA (20 digito).....

ZEIN URTEKO KUOTA ORDAINDU NAHI DUZU?

ARRUNTA (7.500) — FAMILIARRA (10.500) — BORONDATEZKOA (•)

ZENBAT TXANDATAN ORDAINDU NAHI DUZU?

TXANDA BAKARREAN — BI TXANDATAN

(•) Borndatezko kuotaren kopurua norberak aukeratu behar du. Kuota arruntatik gorakoa izan liteke, edo, arrunta ordaintzeko ahalmenik ez dutenentzat 7.000, pezetatik beherako edozein kopuru.

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
J. A. Rodriguez "Txiki": Ikaslearen egutegia.
2. **GALDEZKA.**
Eta zu, joaten al zara santu guztien egunean hilerria?
3. **LARRAUL**
Herriko ostatua maizter berriaren zain.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Andoaingo herria eraikitzen.
Andoaingo lehenengo elizaren azatarnak.
Bertxin berritzeko egitasmoa.
Euskaraokea andoainen.
7. **ASTEASU.**
Kapera berria apaiz etxean.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Euskara merkatal mundura.
Txirrundulari buruzko II. jardunaldiak.
10. **ZIZURKIL.**
Elizpe jubilatuta elkartearen festa eguna.
11. **BASERRIA.**
5B helburua Asteasu eta Larraul garatzen.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Gurpil gaineko etxean.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Mikel Markez, egungo kantari erromantiko bat.
- 16-17. **KIROLA.**
Behobia-Donostia lasterketa herrikoia.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhoa Oartzabal eta Ainhoa Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika.
Komikia: Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga. Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Ikaslearen egutegia



J. A. RODRIGUEZ
"TXIKI"

Kurtsoa hasi berria dugula eta, hona aukera aparta eskolari buruz zerbaitek idazteko. Serioski ala ez hain serioski? Bigarrena aukeratu dut, bizitzari ere gatz pixkat eman behar zaio, ez?

Eta zer aukeratu? Tituloak dioten bezala, ikaslearen egutegia. Arrazoi osoz norbaitek esango du: irakaslearena egin zezakeen, gertuagotik ezagutuko du ba. Beno, ikasleak, ez zaitezte haserretu lerro hauek zuetako bakoitzaren egutegiarekin guztiz bat ez badatoz. Urruti urruti ere ez nabilela, deritzot.

Urria: Horiek zurrumbiloak pasiloetan. Aspaldiko! Zer moduz udara? Kontaidan, kontaidan! Eh, klasea dinagu, beno, berdin dion, ordubetegatik. Goazen tabernara eta kontaidan.

Azaroa: Hotza eta euria hasi zaizkigu, agur udara parteko jantziei, agur beltzaren egoteari. Nere aterkia ikusi al den? Nonbait galdu dinat.

Abendua: Basamortuan ote gaude? Zubik eta zubiondokoak, santuk eta ama birjinak, gabonak eta gabon kantak...klaserik ez. Adio urte zaharrari.

Urtarrila: Urte berri on! Zer moduz erregeak? Hi, hasi beharko dinagu, ez? Apunteak eskatu beharko dizkinagu. Gu beti azken orduan. Lasai neska!

Otsaila: Gau beltzak, aurpegi zuriak, Tabakoa, kea, bitaminak eta zentraminak. Urduritasuna nagusi. Zer moduz egin den? Aprobatu al den? Ondo egin nian, baina, kateatu eginzidan. Beno, ahaztu. Gora ihauteriak.

Martxoa: Hi, bigarrego lauhilabetekoan ez zaizkigu gauza bera gertatu behar, eh: egunean eman behar dizkiagu ikasketa guztiak. Bai, bai.

Apirila: Udaberria. Azken txanparen aurretik atse den pixka bat behar diagu, eh. Merezki merezita zaukagu, zazpi hilabete jo ta ke aritu ondoren.

Maiatza: Lehenengo eguzki printzak bazter guztiak berotzen hasi dira. Utikan neguko arropa, grisak, beltzak eta marroiak. Kolore, kolore.

Ekaina: Zuetako bakoitzak idatz dezan uzten dut azken hau. Zorte on!



Aldizkari honetarako Feskera Jantziak eta Kulturazko Salaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honetarako Gipuzkoako Foru Aklundio Kulturazko eta Feskera Departamenduaren laguntza jasotzen du.

ETA ZU, JOATEN AL ZARA SANTU GUZTIEN EGUNEAN HILERRIRA?

Nahiz eta azaroaren lehena, Santu Guztien eguna, nahikoa tristea izan, herritarrak egun horretan zendutako lagun edota seindeei loreak jartzera joaten ote diren jakin nahi izan dugu. Izan ere, azaroaren lehenean egiten dira hilerriko txukunketa lanak, meza bereziak, lore aldaketak,

eta beste hainbat gauza gehiago. Batzuk hilerrira egun horretan bakarrik joaten direla onartu digute, eta Santu Guztien egunean loreak jartzea obligazio bilakatu dela uste duenik ere bada. Baina hala ere, gehienek dute egun horretan hilerrira bisitatxo bat egitera joateko ohitura.



Goio Monroi, langilea. Larraul.

Egun horretan lehenik mezetara eta gero hilerrira joaten naiz loreak jartzera. Zaldibiara eta Larraula joaten naiz, bi herrietako hilerritan baititut senideak. Egia esan, egun horretan bakarrik joaten naiz hilerrira.



Haritz Iraola, ikaslea. Zizurkil.

Urtero joaten naiz. Ohitura da egun horretan hilerrira joatea, eta familiako guztiak joaten gara. Bestalde, ez dugu ezer berezirik egiten.



Maitena Lizarribar, langabea. Andoain.

Zoritxarrez joaten naiz, bai. Aita dut hilerrian eta urtean bitan joaten naiz. Egun horretan loreak aldatu eta txukundu egiten ditut. Hala ere, obligazioa dela iruditzen zait. Egun, behartu egiten zaigu loreak jartzera joatea; joaten ez bazara begi txarrez begiratzen zaituzte.



Unai Ugalde, ikaslea. Billabona.

Urtero joaten naiz hilerrira. Amak erosten ditu loreak baina gero guztiak joaten gara hilerrira loreak jartzera. Hala ere, ia ez nintzen joan.



Segundo Hernandez, jubilatua. Asteasu.

Hildako senideengana joaten naiz egun horretan hilerrira, baina mezetara jada ez naiz joaten; aspertu egin naiz. Larraulgo eta Asteasuko ehorzlea izan naiz duela gutxi arte, eta lan ugari egindakoa naiz ni azaroaren lehenean!



Mertxe Iturbe, langabea. Andoain.

Bai, urtero joaten naiz. Beti izaten duzu norbait hilerrian eta egun horretan beraietaz gogoratzen gara azaltzeko loreak eramatera gustura joaten naiz. Hilerrian loreak jartzea ohitura bilakatu da nire ustez.

S T O P
LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelese, frantsesez,
italieraz...)

Aqustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

ESTETIK A

- Gorputzerako tratamenduak "GENETIK" erabiliz
- Gorputz drenaje linfatikoa "PRESOTERAPIA"

Kale Nagusia 49 ANDOAIN ☎ 30 06 69

M A I A

TRANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA


Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur

HERRIKO OSTATUA MAIZTER BERRIAREN ZAIN

Taberna, jatetxea eta etxebizitza 40.000 pezetaren truke

Orain artean herriko ostatuaren maizter izan direnek utzi egin behar dute berau. Ondorioz, eta herritarrei biltzeko leku bat eskaini nahian, ostatua maizter berri batek hartzeko deialdia zabaldu du Larraulgo Udalak. 40.000 pezeta gehi dago-kion B.E.Z. kopurua eskatuko dizkio udalak hilero taberna eta jatetxea ustiatzeaz arduratuko denari, eta trukean, ostatuaren irabazien jabe izateaz gain, ostatuaren goiko etxebizitza ere bere esku izango du maizter berriak



Herritarrek biltzeko tokia izatea nahi dute

Hasiera batean, urtebeterako hartuko du ostatua maizter berriak. Hala ere, eta udalak horrela nahi izanez gero, beste lau urte gehiagotan bertan lanean aritzeko aukera dauka. Ostatuko taberna nahiz jatetxea jarri beharko ditu martxan, eta horretarako behar duen langilegoa nola funtzionatzeko behar dituen baliabideetaz bera arduratuko da. Hori bai, ostatua zein egunetan eta zein odutegirekin ireki behar duen udalak adieraziko dio. Euskarazko zerbitzua eskaini beharko du, eta ostatuaren garbiketa ere berak egin beharko du. Era

berean, debekatuta du edozein kartel edota jolas-makina jartzea udalaren baimenik gabe.

Eskaeren aurkezpena


Ostatua maizter berriaren behar-rean dagoela dioen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaldu eta ondorengo hogeita sei egunetan dute eskaera aurkezteko epea interesatuek. Eskaera Larraulgo udal-etxean egin behar dute, edota bestela, postaz bidali dezakete. Hori bai, postaz bidaltzen dutenek telegramaz edota faxez eman beharko

diote udalari horren berri. Aurkeztutako eskaera guztien artean preziorik egokienak, kalitate handiena eta herritari onura gehien eskainiko dion proposamena aukeratu dute.

JOSE ANTONIO URBIETA
GARRAIOAK

URTE OSOAN
SU EGURRA

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN



Lege Zaharren Enparantza, 4 -2
ASTEASU (Gipuzkoa)
☎ 69 26 76 - 69 30 92

BIDE ZAHARRAK TXUKUNDUTA

Bideska guztiak seinalizatu dituzte

Larraul herritik inguruko herrietara joateko bideskak konpondu berri dituzte. Bi langile aritu dira bide horietako zaborrak nahiz larrak kentzen. Hala ere, Larraulgo herritarren laguntza ezinbestekoa izan da bideak txukuntzen bukatzeko. Era berean, bideska horietatik nora joaten den adierazteko seinaleak jarri dituzte. Azkenik, Larraulgo mapa agertzen den egurrezkoa taula ere berritu egin dute.

AMAIA
GIRRE
ZPIAZU

MEDIKUA
OSTEOPATA

RPS. Nº 121/96

•LUNBALGIAK •ARTROSIK
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02
20140 ANDOAIN

ERRETERIA

OROSTIDI

BURDINDEGIA

SUKALDERAKO TRESNERIA

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

ANDOAINGO HERRIA ERAIKITZEN

Etxebizitza asko egingo dira hurrengo urteetan

Urte asko dira Andoain-en etxebizitzarik egiten ez dela. Urnieta, Hernani, Lasarte eta inguruko herriak biztanlez betetzen joan diren bitartean, Andoaingo gazte asko beste herri batzuetara joan dira bizitzera. Orain, herrian 190 etxebizitza inguru egingo dituzte; Andoain eraikitzen hastekoak dira.

Lehenengo etxebizitzak Bazkardo auzoan eginiko babes ofizialeko etxeak izan ziren, guardia zibilen kuartela bota eta hamabost etxebizitza eraiki zituzten orduan. Geroago "eskeletoa" bezala ezagutu zen azpiegitura etxebizitza bihurtu zuten. Herritar askok erosi ahal izan zuten bertako pisuren bat. Orain, etxe horien ondoan etxe gehiago egiten hasi dira, baina lurrazpiko garajeak direla eta, une honetan geldituta daude lanak arazo hori konpondu bitartean. Bestalde, Larramendi 1 eta 2 zenbakitako etxebizitzak obrak aurrera doaz. Izan ere, bertan zeuden etxebizitzak erre ondoren, maizterekin adostu bezala, etxebizitza berriak egitea erabaki zuten. Lan horietaz gain, Andoaingo zenbait leku ezberdinetan etxeak eraikitzeke egitasmoak onartu dira ere. Zumea kaleko 3,5,7 eta 9 zenbakitan 14 etxebizitza, garaje eta etxabeak eraikitzea erabaki dute. Lanak hiru hilabete barru hasiko dira eta, urte t'erdia amaituko dituzte. Lan horiek aurrera eramateko 140.300.000 pezetatako aurrekontua zuzendu dute. Bestalde eta Zumea kalean ere, 20 zenbakian, 10 etxebizitza, garaje eta etxabeak

egiteko proposamena onartu dute. Beste etxebizitzak Kale Nagusian egingo dituzte eta jada hasiak dira eraikitzen. Bi eraikuntza horietan lau etxebizitza, lau garaje eta lokal komertziala egingo dira. Azkenik, La Algodonera izenarekin ezagutzen den lursailetan babes ofizialeko 40 etxebizitza eraikiko dira. Trastategi, garaje eta lokal komertzialez osatuko diren etxebizitza horiek eraikitzeke 372 miloi-

tik gorako aurrekontua zuzenduko da. Babes ofizialeko etxebizitza horiek etorkizunean egingo diren beste 120 etxebizitzaren egitasmoaren hasiera baino ez dira. Etxebizitza horiek guztiak egitearen arrazoia herritarren arazo eta beharrik handienari erantzungo dion irtenbidea bilatzea izan da; orain arteko etxebizitzak ga-beziari erantzuna ematea, hain zuzen.



Lanak nabikoa azkar ari dira egiten

MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLE BERRIAK

96/97 ikasturterako Andoaingo Udal Musika Eskolarako bost irakasle kontratatu dituzte. Biolina, perkusioa, klarineta, tronpeta eta zeharkako xirula erakutsiko duten irakasle horiek denbora mugaturako kontratatu dituzte. Irakasleak Mirari Irurzun, Gorka Mugika, Mikel Mate (zuzendaria), Aitor Gastón eta Mikel Sukunza dira. Irakasle horiek kontratatzearen arrazoiak, aurreko irakasle batzuren jubilazioa eta ikasgai berriak emango dituztela dira, besteak beste. Irakasle berriak bi bakkari dira, besteek iaz ere musikako irakasle gisa lan egin baitzuten herrian. Ikasleen kopuruari dagokionez ez da aldaketarik eman; kopuru berdina mantentzen da. Irakasleaz gain, administrari laguntzaile baten kontratazioa ere egin dute aurtengo ikasturterako.

ANDOAINGO LEHENENGO ELIZAREN AZTARNAK IKERTZEN

Aranzadi elkarteak izan da indusketa lanen arduraduna

Buruntza auzoan kokaturiko Andoaingo lehenengo eliza izan zenaren berri bazuten andoaingarrek. Orain ordea, azken egunotan Aranzadi elkarteak

Buruntzan egin dituzten indusketa lanak izan dira albiste. Aurkikuntzen artean zenbait gorpua izan da garrantzitsuenetakoa.



Giza eskeleto bat aurkitu dute, besteak beste

Urriaren 7an hasi eta 15era bitartean, Aranzadi taldekoak Buruntzako elizaren aztarnak aztertzen eta ikertzen ibili dira burubelarri. Sei pertsonen osaturiko taldeak lehenengo egunetik aurkitu zituen eliza izandakoaren aztarnak. Hartzeko paretak, animalia zein pertsonen hezurak, teilak eta plastiko zatiak aurkitu zituen. Besteak beste. Indusketa lanen zuzendaria izan den Alex Ibañezek azaldu digunez indusketa lanak ondo joan dira: *"Lur unitateak adierazi digu nola jaitsi, zuloak ezin baitira edozein modutara egin. Horrezaz gain, lehenengo egunetik aurkitu ditugun bezurrak eta gorpuak ia beren osotasunean mantendu dira; gizonezko eta haur baten gorpuen eskeletuak egoera nabikoa onean aurkitu ditugu. Aurkikuntza horiek animatu gaituzte lanean jarraitzera"*. Gorpuen aurkikuntzaz gain, eta elizari buruzko planu eta idatziak aurrez ikusi eta irakurri arren, elizaren aztarnak aurkitzea garrantzitsua izan da. Gaurak horrela, elizaren neurriak (hogeita bi metro), kokagunea eta norabidea, gorpuak enterratzeko orientazioa nahiz eliza egiteko erabilitako harriaren inguruan bildutako informazioarekin memoria bat idatziko dute, eta Andoaingo Udalarari emango diote. Udala izan da indusketa horien eragilea, eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bidez burutu dira lanak.

Aztarnak ikusgai

Larunbatak 19ean herritarrek Aranzadikoek eginiko lanak eta aurkikuntzak ikusteko aukera izan dute. Bertan lanean aritu direnek indusketen berri eskaini diete bertara hurbildu direnei.

BERTXIN BERRITZEKO EGITASMOA

Hamar asteko epean burutu beharko dira lanak

Bertxingo zentral elektrikak zenbait konponketa lanen beharra zuenez, udalak zentrala berritzekeo egitasmoa onartu du. Horrela, eginbeharreko konponketen zerrenda bat burutu dute lanen nondik norakoak finkatzeko.

Burutu beharreko lanen artean ibaia ezkerredera desbideratzea eta lanetarako sarbidea egitea dira, besteak beste. Era berean, konporta ireki ahal izateko lehiatila egitea eta zentralaren ezkerreko hormaren konponketa egitea aurrakusten dute egitasmoan. Azkenik, mugitutako lurrak eta lanerako erabilitako materialak kentzea dira, egingo diren lanetako batzuk. Lan horiek egiten hasi eta hamar astetako epean bukatu egin beharko dira. Lanak aurrera eramateko udalak 8.739.450 pezetako aurrekontua onartu du.



EUSKARAOKEA ANDOAINEN

ETB1-eko Ixiar Oreja andoaindarrak aurkezturiko Euskaraokea programa grabatu da Andoainen urriaren hamarrean. Saioan parte hartu zuten gaztetxoek eta inguruan bildu zirenek dantzatzeko nahiz kantatzeko aukera paregabea izan zuten, beraz.



Goikoplazan ezarritako eskenategian bildu ziren abeslariak eguerriko ordubi terdiak aldera. Herriko ikastetxeen artean eginiko zozketaren ondoren, Aita Manuel Larramendiko 36 ikasle hautatu zituzten abesteko.

Astean behin grabatzen den programa denez, aste osoko saioak grabatu zituzten egun berean. Horrela, lau multzo ezberdinetan banatuta, bederatzik ikasle hartu zuten parte saio bakoitzean, eta finalerako 12 ikasle gelditu ziren: *Amaia Otaño, Argoitx Iztueta, Marina Alkorta, Sandra Gaitte, Maite Sagaseta, Itziar Asensio, Amaia Diez, Neide Garmendia, Larraitx Imaz, Laura Roncero, Egoitz Gorostegi*, eta garaile izan zen *Lierni Alkorta*. Abestu zituzten kanten artean, *"Emakume jai nintzen"*, *"Zu barik"* eta *"Inaki"* abestiak izan ziren ezaunak. Ikastolako irakaslea den Josune Iriondok azaldu digunez ikasleak entsaiu eta presaketan lanetan gustura ibili dira: *"Ikasleek oso ondo pasa dute, eta ETB-ko arduradunak ere gustora gelditu dira programen grabaketekin. Beraz, denak gustura"*. Azkenik, gogoratu *Euskaraokea* programen emisio eguna urriaren 21etik 26ra bitartekoa izango dela.

1997/1998 RAKO EPAIMAHAIKIDEAK

Irailean 30ean eginiko zozketan 97/98ko epaimahaikideak hautatu zituzten. Andoaingo hogeita zazpi biztanlek osatzen dute epaimahaien zerrenda, besteak beste. Zerrenda hori osatzen dutenek Entzutegi Probintzialak bidalitako gutun baten bitartez izango dute informazio gehiago. Hautatuak izan diren pertsonak zerrenda horretatik kanpo geratzeko, Tolosako lehen instantzia eta instrukzioko 3. epaitegiko epaile dekanoren aurrean egin behar ko dituzte erreklamazioak. Erreklamazioa egiteko epea azaroaren 15ean amaituko da. 1997-1998 urte bitartean epaimahaikide izango direnen zerrenda udaletxeko bulego orokorretan jarriko da ikusgai datorren urriaren 31 bitartean.



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO HALTZARIAK**



Arteta kalea. 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45
ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

KAPERA BERRIA APAIZ ETXEAN

Gauza erlijiosoetarako erabiliko dute konpondu berri duten apaiz etxea

Eguneroko meza entzuteko eliza handiegia eta hotzegia delako kapera bat ezarri dute apaiz etxean. Apaiz etxea hutsik zegoela eta otu zitzairen bertan kapera ezartzea, eta auzolanean egin dituzte etxearen konponketa eta kapera jartzearen lanak. Bestalde, herrian presentzia erlijiosoa egoteko, eta jaunartzea egin behar duten haurren gurasoei doktrina irakasteko erabiliko dute konpondu berri duten apaiz etxea.



Egunero meza entzuteko lekua

"Batek utzitako gauzekin eta besteak eginiko lanekin osatu dugu kapera", esan digu Joxe Mari Albizu herriko apaizak. Izan ere, herriko elektrizistek, arotzek eta langile gehiagok egin dituzte apaiz etxearen konponketa lanak, eta kaperako eserlekuak adibidez. Larraulgo elizakoak dira. Dozena bat lagun joaten dira egunero elizara meza entzutera, baina hemendik aurrera kapera herrira joango dira iluntzero. "Eguneroko mezarako eliza berotzea asko kostatzen da neguan, oso handia baita. Gainera, argi ugari piztu behar dira eta horrek ere gastua suposatzen du. Leku goxoagoa da kapera" erantzun digu apaizak kapera zergatik egin

duten galdetzean. Horrezaz gain, apaiz etxea konpondu dute, eta bertan, jaunartzea egin behar duten haurren gurasoei doktrina irakatsiko diete: *"seitlik zortzi urte bitarteko haurrek doktrina etxean ikasiko dute, eta horretarako, gurasoei, zer eta nola erakutsi behar duten azalduko diet nik hemen".*

Presentzia erlijiosoa ziurtatu nahi

Bestalde, apaiz etxearen goiko etxebizitza egokitu dute *"herrian presentzia erlijiosoa ziurtatzeko eta beharrezko dagoen familiren bat bizitzeko"*. Apaizaren esanetan ez da nahikoa meza bakarrik ematea, eta beraz, apaiz etxea herritarren gune erlijiosoa izatea nahi du.

Ugarte baserriak jaso zuen fruta onenaren saria

I railan herrian antolatuta zuten barazki erakusketan Ugarte baserriak ere irabazi zuen sari bat; fruta onenaren saria irabazi zuen, hain zuzen. Goria baserria gelditu zen fruta onenaren sariketan bigarren postuan, eta Ibarrazpi baserria herriz, Lamitegiren atzetik gelditu zen barazki onenaren sari banaketan. Azkenik, aipatu Arretondo, Agerrebekoa, Matxine eta Aldaia baserriek ere hartu zutela parte erakusketa eta lehiaketa horretan.


OHARRA

Joan den hilean egin zen artisau erakusketan giltza batzuk galdu zituen norbaitek. Bost giltza dira eta bakearen usoaren irudia duen giltzatakotan biltzen dira guztiak. Giltza horiek Asteasuko udaletxean daude beren jabearen zain.

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa
- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

EUSKARA MERKATAL MUNDURA

60 merkatarari daude iaiztik egitasmoan

Udaleko euskara zerbitzuak herriko denda, jatetxe eta tabernetako errotulazioak euskaraz jartzeko aukera nola euskara ikasteko klaseak eskainiko dizkie, besteak beste, merkatariei.

Duela bi urte hasi zuten ekimenak merkatariek herri-tarrekin harremanak euskaraz edukitzea du helburu, eta bien bitartean, merkatarri bakoitzak aukeratuko du euskaraz eskaini nahi duen zerbitzu mota.

Hilaren zazpian hasi den "Euskara merkatal mundura" izeneko kanpaina azaroaren erdialdera amaituko da. Hasieran kanpainaren nondik norakoak azaltzen zituen eskutitz bat jaso zuten merkatarri guztiak; ondoren eta herrikuntza moduan, telefonoz deitu zitzaion duela bi urte kanpaina horretako konpromezuak sinatu ez zituzten merkatariei. Beraz, aukera berri bat eman diete merkatarri horiei aurtengoan, "askok publikitate eta antzeko gauzak euskaraz egiten baitituzte, nabiz eta kanpainako konpromezuak sinatu gabe eduki" esan digu Maite Arregi euskara dinamizatzaileak. Behin hori eginda, kanpainarekin interesatuta agertu direnak, aurreko urteetan kanpainaren konpromezuak sinatu zituztenak nola merkatarri berriak, euskara zerbitzuko kide baten bisita izan dute. Bisita horie-

tan euskara zerbitzuak merkatariei eskaintzen dizkien aukera edota konpromezuak zeintzuk diren azaldu zaizkie; errotulazioak euskaraz jartzeko dirulaguntzak, euskarazko klaseak jasotzeko nola idatziak euskarara itzultzeko aukera, eta udalarekin harremanak euskara hutsean izateko posibilitatea, alegia. Eskaintza guztietatik merkatariek aukeratu dituzte betetzeko prest dauden konpromezuak: "merkatarri bakoitzak bere buruari jarri dio beraz beteko duen konpromezua" azaldu digu euskara dinamizatzaileak.

SIADECOren azterketa

Egitasmo honetan inguruko herri gehiago daude sartuta, eta behin leku guztietako kanpainak bukatu ondoren, SIADECO erakundeak datu guztiak bildu, aztertu eta hainbat ondorio aterako ditu. Denda herrietako langileek duten hizkuntza maila eta dendako iragarriak, boltsak eta antzeko gauzak zein hizkuntzatan ageri diren aztertuko dute. Horrezaz gainera, iaiztik egitasmo horretan sartuta dauden merkatariek hartu zituzten konpromezuak bete ote dituzten eta zein zailtasun izan dituzten aztertuko dute.



Dendariek bezeroekin euskaraz hitz egitea nahi

Euskal txokorako begiraleak

Eskolaz kanpo euskaraz hitz egiteko aukera askorik ez duten haurrek euskaraz gehiago egiteko aukera izango dute aurrerantzean. Izan ere, haurerentzako Euskal txokoa antolatatu du euskara zerbitzuak larunbatetan goizeko 10etatik 12.30etara. Haur bakoitzak 5.000 pezeta ordaindu beharko ditu ikasurte osokoaren trukean, eta hilaren 30a baino lehenago eman behar dute izena interesatuek.

Haur horiekin lanean aritu nahi dutenek ere hilaren amaiera baino lehenago eman beharko dute izena, eta onartuak ahal izateko baldintza hauek bete behar dituzte: hemezortzi urtetik gorakoak eta Billabonakoak izan behar dutelarik. Gainera, lanagabeak eta euskaraz hitz egiten dakitenak izan behar dute.


Gema
Loradenda
LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK
Kale Nagusia, 30 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

VAC VAC **HOL - ATZ**
VACSOL - WIT TRATAMENDUA EGURRARENTZAT
PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA
Elbarrena, 2/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

PATXI ZUBIZARRETA:
"GURE BARRENA ASKATZEKO
IRAKURTZEN ETA IDAZTEN DUGU"

Liburuaren astearen barruan Patxi Zubizarreta idazleak hitzaldi bat eskaini zuen. Ordu erdi inguruko hitzaldian hainbat ipuin, kontu eta gogoeta kontatu zituen Zubizarretak, liburu bat nola osatzen den eta zein osagai dituen azaltzeko.

Liburu bat nola egiten den argitzeko porru pastela egiteko behar diren osagaiak eta jarraitu behar diren pausuak azaldu zituen Patxi Zubizarretak. Bere esanetan, liburu edota historio batek mania, gogoetak, emozioa eta beste zenbait osagai gehiago ditu, bakoitza neurri jakin batean. Osagai horiek guztiak elkar nahastuz osatzen da liburua, idazle bakoitzak gustokoen dituen elementuak gehiago edo gutxiago erabiltzen dituelarik. Osagai bakoitza nolakoa den, zein eragin duen eta liburu bat idazterako garaian nola erabili behar den hainbat ipuinen bidez azaldu zuen idazleak. Bestalde, barruko korapiloak askatzeko eta amesteko idazten eta irakurtzen dugula adierazi zuen Patxi Zubizarretak.



Patxi Zubizarreta idazlea

TXIRRINDULARITZARI
BURUZKO II.
JARDUNALDIAK

Azaroaren 4tik 9ra hitzaldiak
egunero Gurea zinema aretoan
iluntzeko 20.00tan

Azaroaren bigarren astean hitzaldiak, diapositiba emanaldiak eta argazki erakusketak izango dira Gurea zinema aretoan ikusgai. Irrintzi elkarteak antolatuko duen txirrindularitzari buruzko II. jardunaldiaren barruan izango dira ekintza horiek guztiak, eta ospe handiko kirolariak etorriko dira.

Azaroaren 4an txirrindularitzari buruzko prentsa aztertuko dute David Etxeberriak, Mikel Zarrabeitiak eta Jon Odriozolak beste gonbidatu batzuren artean. Hurrengo egunean, hilaren 5ean, **diapositiba emanaldia** eskainiko dute Inigo Cuesta, Jose Luis Arrieta eta beste zenbait gonbidatu gehiagok. Azaroaren 6an, **1997. urteko Donostiako munduko txapelketaz** ari-tuko dira solasean Aitor Garmendia, Jose Miguel Etxabarrri, Jaime Ugarte eta besteak beste. Eta nahiz eta oraindik ziurtatzeke dagoen, Miguel Indurain etorriko da behar bada. Egun berean **Desiderio Mondelo argazkilariaren erakus-keta** inauguratuko dute Gurea zinema aretoko erakusge-lan. Miguel Indurainen ehun eta hamar argazkiz osaturiko argazki erakusketa izango da, eta hilaren 17ra arte izango da ikusgai. Azaroaren 7an berriz, **medikuntza eta pres-takuntza** gai izango dute Abraham Olano, Miguel Morrás, Manolo Saiz eta beste gonbidatu batzuek hizpide. Jardunal-diekin amaitzeko **mountain-bike** gaiiaz hitz egingo dute Jokin Mujika, Joseba Ovando eta Roberto Lezaunek.

AMASAKO JAIK

AZAROAK 11, ASTELEHENA;
SAN MARTIN EGUNA

10.30: MEZA

Ondoren: HERRI KIROLAK
 BERTSOLARIAK
 TRIKITILARIAK

Arratsaldean: PAIA TXAPELKETAREN
 FINALA
 BERTSOLARIAK
 TRIKITILARIAK

AZAROAK 14, OSTEGUNA;

06.00: OILASKO BILKETA BASE-
 RRIZ BASERRI

16.30: OILASKO JOKOA

Ondoren: OILASKO JOKOAREN
 PARTE IIARTZAILEEN
 AURRESKUA

Gauean: AFARIA

AZAROAK 15, OSTIRALA;

18.00: TAKOLO, PIRRUTX ETA
 PORROTX PAULASOAK

Ondoren: TXOKOLATADA HAU-
 RRENTZAT

BAKAILU LEHIAKETA
 SAGARDO DASTAKETA

Gauean: AKELARRE TALDEA

AZAROAK 16, LARUNBATA;

11.00: GAZTETXOEN KROSSA

Eguerdian: BAZKARI HERRIKOIA

Gauean: BERTSOLARIAK
 22.30: IZOTZ TALDEA

AZAROAK 17, IGANDEA;

Goizean: ESKUZZKO PILOTA PAR
 TIDUAK

Ondoren: ASTO KARRERA

Arratsaldean: OINKARI DANTZA TAL-
 DEAREN EMANALDIA
 TRIKITILARI GAZTEEN
 TXAPELKETARAKO
 SAIOA

Ondoren: TRIKITILARIAK

00.00: INTXAUR HAUN-
 DIA KALEJIRA

ELIZPE JUBILATU ELKARTEAREN FESTA EGUNA

170 lagun baino gehiago izan ziren bazkarian

Festa egun alaitsua izan zuten hilaren 12an Elizpe jubilatuek elkarteko lagunak. Jubilatuen elkartean egin dituzten berrikuntzak ospatzeko, eta azken asteetan jokatu dituzten karta saioetako irabazleei sariak emateko egin zuten jaialdia. Horrezaz gain, laurogei urte bete dituzten herritarrak omendu zituzten egun berean.

Urriaren hamabiko eguerdiko ordubatean jubilatuek ugari joan zen meza entzutera. Izan ere, jai egun luzea zuten aurreko, eta eguerdiko meza egunaren ekintza nagusienetako bat izan zen. Ondoren, ordubiak aldera edo. Zentro jatetxera joan ziren bazkaltzera guztiak. Bost terdiak arte iraun zuen bazkaria, eta ehun eta hirurogeita hamar jubilatuek baino gehiagok jan zituzten Zentrokoek prestatutako janak. Jubilatuek esan digutenez oso

ongi bazkalduek zuten, eta bazkariaren ostean kafeak, pattarra eta puruak ez ziren falta izan, noski. Orduan omendu zituzten aurretan 80 urte bete dituzten zizurkildarrak, eta bakoitzak plakatxo bat jaso zuen oroigarri moduan. Ondoren, kartetan irabazle izan ziren bikoteek jaso zituzten euren sariak.

Umorea nagusi

Umorea ederra erakutsi zuten jubilatuek egun guztian zehar, hainbat kontu, txiste eta algara entzun baituzten bazkarian. Hala ere, eta eguna ongi amaitzeko, amaieran egin zuten dantzaldiak erakutsi zuen hirugarren adineko zizurkildarrek duten umorea eta indarra.



80 urte bete dituzten omenduak


IPUIN KONTALARI IKASTAROA

Oihulari klownekoek emango dute ikastaroa

Azaroaren 13an hasiko da Zizurkilgo Kultur Etxean ipuin kontalaria ikastaroa. Hamar lagun inguruk egingo dute ikastaroa, eta asteazkenean arituko dira 3 orduz ikasten, hemezortzi orduko ikastaroa izango da guztira. Denbora horretan, ipuinak kontatzeko zein teknika dauden, nola kontatu behar diren, nola ahozkatu behar diren, eta zein ipuin kontatu ere ikasiko dute, besteak beste. Ikastaroa egingo duten gehienak irakasleak dira, edota bestela, haurrekin aisialdian lan egiten duten gazteak. Ikastaroa ematera berriz, *Oihulari klowneko* partaideak etorriko dira.

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL



ZUBi AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

TAXI ZIZURKIL

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Pello Ezeiza



Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00

5B HELBURUA ASTEASU ETA LARRAUL GARATZEN

Nekazaritza bultzatzea du xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Komunitate Europarrak eta Eusko Jaurlaritzak, Ernio mendiaren inguruko nekazal herrien garapenean laguntzeko 5B helburua eta Leader II egitasmoak jarri ditu martxan.

Asteasu eta Larraul nekazal herriak, Ernio mendiaren inguruan kokatzen diren beste herri batzuek bezala, zenbait arazo dituzte egun: biztanlearen beherakada handia, nekazaritzaren gehiegizko pisua gainerako sektoreen aldean, eta azpiegitura eta zerbitzu eskasia, esate baterako. Hori guztia konpontzeko *5B helburua* eta *Leader II* egitasmoak jarri dituzte martxan Asteasu eta Larraulen. Europako egitasmo horiek 1994tik 1999ra bitartean iraungo dute, eta bere helburuak nekazaritzaren errentak hobetzea, zerbitzu eta industri arloan lanpostuak gehitzea, ekonomia azpiegiturak eta gizarte ekipamenduak garatzea, nahiz natura zaintzea eta berea aisialdirako erabiltzea dira. Azken batean, herri horietako sozioekonomia bizkortzea da helburua.

Dirulaguntzak


Dirulaguntzak erakunde publiko zein ekimen pribatuei zuzenduak

daude, eta zenbatekoa egitasmo bakoitzaren arabera izango da: egitasmoaren herritasuna, sortuko dituen lanpostu kopurua, iharduera ekonomikorik sortuko ote duen e.a. aztertu ondoren erabakiko dute dirulaguntzaren zenbatekoa. Gehienez, inbertsio gordinaren %46a izango da. Dirulaguntza horien eskaera egin duten lehenengoak udalak izan dira.

Gai hori zuzenetik jarraitzen duen Xabier Arrutik azaldu digunez, ekimen pribatuak oraindik gutxi dira: *"Zenbait baserritarrek aurkeztu dituzte proiektuak baina oraindik gutxi batzuk dira. Zer bait entzun dute eta galdezka etorri dira. Hala ere, ekimen pribatua gehiago interesatuko direlakoan gaude"*.

Inbertsio handia

Asteasu eta Larraul bezalako herrietara zuzenduriko egitasmo horietarako aurikusi den inbertsioa 2.663 milioi pezetakoa da. Diru kopuru horrek, oinarritzko azpiegitura lortzea, beste iharduera mota batzuk bultzatu eta lana sortzea, edota naturaren eta ingurugiroaren baliabideak nahiz giza baliabideak hobetzea du helburu, besteak beste. Informazio gehiago nahi izanez gero, Asteasuko udaletxean bulego bat jarri dute *5B helburua* eta *Leader II* egitasmoen berri emateko. Bestela, 691907 telefonora deitu eta Xabier Arrutiri buruz galdetu.



Nekazal herriak zuzpertzeko egitasmoak dira

Zabala
Ordukari Bitxitegia

RACER LOTUS
TISSOT SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

ONDARRETA
TABERNA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak

Arkume eta txerrikume erreak enkarguz

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

GURPIL GAINEKO ETXEA

Gasolinaren igoerak egonezina handitu du

Edozein errepidetan hamaika kamioi ikus- teko aukera izaten dugu. Handi, txiki, zahar nahiz berri, kamioi guztiek gutariko askok baino herri eta toki gehiago ezagutzen dituzte. Kamioilariak minutuak, orduak, eta egunak pasatzen dituzte bolantean erpepi- detako trafikoa eta beren bakardadea soilik lagun dituztela. Kamioilarien bizimodua gertutik ezagutzeko Beraza garraioak enpresako langileengana jo dugu.

Astebukaera da, eta gehienok jai dugun arren, ka- mioilari batzuentzat lan eguna da. Izan ere, bati baino gehiagori deitu eta ez ditugu etxean aur- kitu. Azkenean ordea, bildu ditugu asteburu horretan lanik ez zuten *Beraza garraio enpresako* zenbait ka- mioilari. "Ni orain bajaran nago. Karga-deskargan nen- bilela istripu bat izan nuen, eta azken bamar hilabe- tetan ezin izan dut lanik egin. Baina bala ere, ka- mioilari izatea ez nuke beste profesio batengatik alda- tuko, bere alderdi on eta txarrekin, betidanik gustukoa izan dudana lanbidea baita" esan digu Manuel Beraza kamioilari andoaindarrak. Manuel Berazak bere bi anaia eta mutil gazte batekin batera *Beraza garraioak S.L.* enpresan egiten du lan, nahiz egun bajaran dagoen. Ai- taren profesioarekin jarraituz, bera eta bere anaiaetako bat duela hogeitatu urte hasi ziren kamioiarekin lan egiten. Hirugarren anaia duela urtebete hasi da berrie- kin lanean, gainditu behar diren azterketak eta frogak egin ondoren. Manuelek dioenez gauzak asko aldatu dira hogeitatu urteotan: "*Garai batetan aitaren lanbidea semeei pasatzen zizaien, normala zen semeak aita- ren lanbide berean jarraitzea. Gaur egun ordea, geroz eta gutxiagotan gertatzen da bori; kamioilari izateko az- terketa eta frogak ezberdinak pasa behar direlako. Lizen- tziak, azterketak, eta okerragoa dena, diru asko behar da kamioia erosi eta mantendu abal izateko*".

"Diru asko behar da kamioia erosi eta mantentzeko"

Autonomo bezala lan egiten duten arren, istripu eta arazo larriei aurre egiteko sozietate mugatua gisa osatu berri dute enpresa. *Zubialde* eta *Cenia* enpresarentzat egiten dute lan eta batzuetan agentzien bitartez egiten dute lan. Horrela, orain artean behintzat, papera egite- ko pasta eta igogailu nahiz antzeko tresneria garraiatu



ohi dute. Paper-ore hori beren aitak ere garraiatzen zuen lehen.

Atzerrira joateko baimena eta paperak izan arren Estatu mailan ibiltzen dira. "Asko dira kamioiari joaten diren garratolariak, eta gainera, bidai luzeagoak eta egun gehiago behar direnez, Estatu mailan mugitzen gara. Hala ere, bi-biru egunetako bidaiak egiten ditugu normalean. Igande goizean edo eguandian kamioi- arekin abiatu eta astelehenerako errepidean gaude. Joan behar dugun lekuan deskargatu eta berriro etxe- ra. Egun horietan kamioian egiten duzu bizitza, bai- ta lo ere; zure bigarren etxea bilakutzen da. Bizimo- du gogorra da baina gustukoa izanez gero ez da arazorik izaten".

"Bizimodua gogorra da baina gustukoa izanez gero, ez da arazorik izaten"

Beren familiakoek beraien auzentzia nola bizitzen duten galde-tzean farre egin digu. Izan ere, ohituta daude aita edo senarra etxetik kanpo izatea. Gainera, Manuelek dioenez, "basieratik zekiten zer zegoen. Hasieratik zuten lanbidearen gorabeheren berri, beraz, etxeoak, nabiz eta gogorra izan, ohituta daude".

Europako araudia

Europako araudia dela eta, zortz kontrolatzen dute kamioien abiadura eta kamioilariak gidatzen dituzten ordu kopuruak. Takografo deitzen den tresnak, egun bakoitzean gidaturiko ordu eta abiadura azaltzen ditu bertan egunero jari behar den orritxoan. Kamioian aste oso bateko datuak izan behar dira, eta etxean edota bulegoen berriz, azken bi urtekoak. "Madrildik nabiz bemendik eskatu abal dizkigute paper horiek, eta legea betetzen ez badugu denuntzia eta isun gorrak ezartzen dizkigute. Kamioia ez digute kenduko, baina zigorrak handiak dira". Beraz, zigorrik ez izateko lau ordu t'erdiz gidatu, ordubetez deskantsu eta beste lau ordu t'erdiz gidatu behar da. Ondoren zortzi orduko deskantsua egin behar dute.

Konpetentzia handia

Konpetentzi handiko sektorea den galdetu diogunean berehala baietz ihardetsi digu: "Behar baino gebiago gara, baina gauza bera



Egun asko pasatzen dituzte kamioilariak etxetik kanpo

gertatzen da beste zenbait sektore batzuetan ere. Askotxo sobratzen gara baina..., zer egingo dugu?".

Horrezaz gain, garraiolarien egoera ez da batere ona. Errepideak eta kamioiak egoera onean izan arren, kamioia mantentzea garestia da. Bost urtera amortizatzen da kamioia, eta zortzi urte ingurura, kamioi berria erosi beharrean aurkitzen dira kamioilariak, konponketan diru asko ez badute gastatu nahi, behintzat. Bestalde, egoera onean eduki behar da kamioia. Hala ere, okerrera ordaindu behar izaten dituzten tasak eta gasonilaren igoera

izaten dira. Kaltegarriena ordea, Portugesen konpetentzia da: "Lan-esku merkea dira oso; lan ordu askoren truke oso gutxi kobratzen dute. Latetako janarekin moldatzen dira eta kamioian egiten dute lo. Beraz, diru gutxi gastatzen dute eta merke egiten dute lan. Frantsesentzat, alemanentzat zein guretzat konpetentzia handia da hori. Horrezaz gain, zenbait momentutan lan asko izaten dugu, eta bestee-tan berriz, ez daukagu lanik. Etorkizunean ere lana edukitze-ko, lan asko egitea eta bezeroa gustura izatea dira gure irtenbi-de bakarra".

SAHATSA
 BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
 KONTSULTA NATURISTA
 Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 40 63 - BILLABONA

GOROSTI
HERBORISTERIA

- DIETISTA
- BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- INTSENTSUA
- KANDELAK

Txermin kalea 13, be
 ☎ 69 20 56
 Billabona

ILLUMBE, S.L.
 Autoelektrizitatea

BOSCH SERVICE

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
 Pablo Gorosabel, 48
 ☎ 65 54 76 TOLOSA
 Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
 ☎ 59 24 11 ANDOAIN

Billabona

MIKEL MARKEZ, EGUNGO KANTARI ERROMANTIKO BAT

Erreterian jaio zen duela hogeita bost urte Mikel Markez kantaria. Azken urteotan ordea, bizitzaren gora beherak direla eta, Aian bizi da. Hamazazpi urte zituenetik ari da kantuak egiten. 1989an grabatu zuen maketako "Zure begiek" kantarekin lortu zuen ospea, eta ordutik gaur egunera arte hiru diska kaleratu ditu. Azkenaldian ordea, euskal kantari erromantikorik ezagunena den Markez eta beste bi lagun ipuin, kanta eta bertso erotikoak biltzen dituen "Ihurtzi nazazu berriro laztana" ikuskizuna eskaintzen ari dira herriz herri. Billabonan gaur eskainiko duen kontzertuan aldiz, bere kantuak abestuko ditu; batzuk berriak, gainera.



Aiurri: "Zure begiek" abesti arrakastatsuen bitartez egin zinen ezaguna duela urte batzuk; boom bat izan zen. Ordutik gaur egunera arte gauza ugari, eta gainera, azkar egin dituzu, ezta?

Mikel Markez: Hemezortzi urte nituen orduan, gaztetxo, beraz, eta ospea berebala lortu nuen kantu horren bitartez. Berari eskerrak egin nintzen ezaguna, nabiz eta egin ez natorren bat bertan esaten dudana guztiarekin. Garai berran kontzertu asko eman nituen, eta nolabait esateko, oso modan jarri nintzen. Geroago, 92an, lehenengo diska grabatu nuen. Harez gero beste bi gehiago grabatu ditut, eta orain, nabikoa nekatuta nago. Denboraldi batean behintzat ez dut diska gehiagorik grabatuko: oxigenatu beharra daukat.

Ai: Euskal Herriko kantaririk erromantikoenetako bat zarela diote. Gainera, gizarteko hainbat gai eta arazo ukitzen dituzu zure kantuetan; zer da zure abestiekin lortu nahi duzuna?

M.M.: Egia esan, nabiz eta hiru diskoak ezberdinak izan, guztiek ildo bera dute: gai berdintsuak eta antzeko musika dute nire kantuek. Beraz, nabikoa erromantikoa dira guztiak eta nik ez dut ezer egin hori horrela izateko edota ez izateko; ez diet batere kasurik egiten nitaz egiten dituzten definizioei. Bestalde, gizarte bati zertxobait aldatzeko asmoarekin egi-

ten ditut abestiak, ekarpen txiki bat egiten dudalakoan, alegia. Hala ere, oso arrikutsua iruditzen zait entzulegoak gure burutapenei kasu egin behar diela sinistea.

"Arrikutsua da entzuleek gure ideiak asumitu behar dituztela pentsatzea"

Ai: Kantari gazte gutxi zaudete egun gitarra besapean hartu eta jendearen aurrean kantari ari-tzen zaretenak...

M.M.: Egungo moda baxoa, gitarra, bateria, eta orain, trikitixa, jotzen duten musika taldeak eratzea da. Gainera, eta behar bada, talde horiei errazagoa zaie kontzertuak eskaintzea. Kantari-bakarleri bezala ari-tzeko, bati da, jendeak zu ezagutu eta entzuteko, hiru gauza hauek behar dira: zortea, egun eta leku jakin batean momentu egokian egotea, alegia; musika egiten garai egokian bastea, eta ni adibidez hemengo rocka gainbeheran zegoenean basi nintzen musika jotzen; eta azkenik, musika egiteko trebea izatea.

Ai: Euskal musika ezberdina egiteko eta entzuteko aukerarik ba al dago egun?

M.M.: Musika aniztasun handia dago gaur egun hemen. Nire kantaldietara adibidez. Negu Gorriak taldearen nikia jantzita etorri obi da jendea; bi musika mota oso ezberdin gustatzen zaion jendea, alegia. Gaur egun jendeak belarriak nabikoa zabalik dauzka, mota askotako musika entzuten da, eta ondorioz, era askotako musika egiteko aukera dago.

Ai: Euskal kantagintzaren belaunaldi berriko kantaria kontsideratzen al zara?

M.M.: Ruper Ordorika eta nirekin zalantza ugari izan zuten gu sailkatzerako orduan. Ruper 80-eko hamarkadan hasi zen abesten, euskal kantagintzaren gainbehera eman zenean, bain zuen. Eta ondorioz, ez zekiten rockero bezala, euskal kantagintzaren jarraitzaile bezala edota nola demontre definitu. Ni abesten hasi nintzenean ere, Patxi Sainz, Jon Bergaretxe eta antzeko musikari gehiago geunden. Guri ere Ez Dok Hamabiruaren jarraitzaile gisa definitu gintuzten, prentsak gebienbat. Neri egia esan, ez dit batera axola Ez Dok Hamabiruarekin erlazionatzea, asko ikasi baitut beraiengandik nola beste batzuegandik ere. Orain ordea, kantatzen hasi berria banintz, ziur Estatuko kantari gazteekin batera sailkatuko ninduketeela. Dena ordenatu eta sailkatzen dugun garaia bonetan, jendeak kantariak ere nonbait sailkatu beharra izaten du.

“Jendeak kantariak musika konkretu batean sailkatzeko beharra dauka”

Ai: Euskaraz eta euskal giroen abesteak zein alde on eta zein alde txar ditu?

M.M.: Herri bonetako egoera berezia dela eta, euskal giroan mugitzen garen abeslariok badugu nola-baileko babes sozial bat. Hori askotan ona izaten da, baina beste batzuetan nekatu egiten zaitu. Izan ere, bainbat gai daude borien alde edota kontra zerbait egitea merezi dutenak, baina denbora asko horretan igaroz gero nekatu egiten zara. Bestalde, euskaraz abesten duen edonork erdaraz abestuz gero traidorea kontsideratzen da, zenbait idazle edota antzerki taldek gauza bera arazorik gabe egiten duten bitartean. Kanta bat euskaraz eta erdaraz grabatu, eta gero, froga bat egingo nuke nik gustura; euskal giroan bietatik gehiago zein entzuten den aztertuko nuke. Ezusteko bat hartuko genuke, behar bada. ■



Ez du diskorik eskuartean

MILIKOST

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

GIROKANTAKO

KIROL JANTZIAK

Liraura

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA HERRIKOIA

Hamar mila lagun baino gehiago irtengo dira aurtengoan

Azaroaren 10ean izango da aurtengo Behobia-Donostia lasterketa. Hogei kilometroko lasterketa luze horretan irteten diren askok normalean korri egiteko ohitura izan arren, korrikalari gehienek bakarrik lasterketa horretan hartzen dute parte urte osoan zehar. Batzuek iaz eginiko denbora jaitsi nahiko dute aurtengoan; beste batzuek berriz, lasterketa onik bukatzea izango dute helburu; guztien saria ordea, lasterketaz gozatzea izango da.

Beterriko herritar asko irtengo dira azaroaren bigarren igandean egiten den Behobia-Donostia lasterketan. Koldo Irazu larrauldarra adibidez, iazko lasterketan zortzigarren postuan gelditu zen, eta kasik ziur aurtengoan ere parte hartuko duela. Billabona, Zizurkil nahiz Asteasuko lagun asko ere gogor entrenatzen ari dira azken egunotan lasterketan parte hartzeko; Sacem lantegiaren atzeko bidean ibiltzen dira gora eta behera korrika. Oso arrakastatsua den lasterketa horren berri izateko jo dugu Rosa Luena korrikalariarengana. Andoaindarra eta Zumeatarra korrikalari elkarteko kidea da bera. Bere esanetan, Donostia-Behobia lasterketa bera oso berezia da: *"lehenengo urteetan oso urduri jartzen nintzen, jende ugari izaten baita korrikalariak anima-tzen. Izugarri emoziona-tzen nintzen"*.

Behobia-Donostia lasterketan parte hartuz hasi zen Rosa lasterketa gehiagotan korri egiten duela zazpi urte. Goizeko hamaiketan Behobian hasi eta Donostiako Bulebarrean amaitzen den lasterketa hau oso gogorra izan arren, *"Lezoko gaineko eta Miracruz aldapa adibidez, oso gogorrak dira"* Parte hartze handia duen lasterketa da: *"jendearen animoek aurrera jarraitzeko indarra ematen dute, eta beraz, gebienek lasterketa amaitzea lortzen dute"*. Aurreko urteko lasterketetan helmugara orludete

eta hogeita hamar minutu baino lehenago iri-tsi delako dorsal ezberdina, kolorezkoa, alegia, izango du aurtengoan Rosak. Aurtengo berrikuntza, kolorezko dorsala duten korrikalariak gainontzekoak baino lehenago irtengo direla da, *"denak batera ateraz gero izugarrizko iskanbila sortzen baita"*. Rosak urtean zehar hainbat lasterketetan parte hartzen duen arren, urtero irteten da Behobia-Donostian: *"Hasieran lasterketa bukatzeko helburuarekin irteten nintzen; orain ordea, denbora jaistera joaten naiz. Hala ere, oso gustokoa dudalako bar-tzen dut parte"*.

Lehenengo postuetan ailegutzen direnek sariren bat edo beste lortzen dute, baina benetako saria lasterketa ongi amaitzea eta denbora jaitea dira. Lasterketan irten aurretik korrikalari bakoitzari domina bat ematen diote, eta egun batzuetara, eginiko denboraren berri ematen duen pegatina bidaltzen diote bakoitzari etxera. Izan ere, Behobia-Donostia lasterketan jendeak ez du sariengatik korritzen. Ondorioz, Rosak esan digu erdi mailako korrikalariak hartzen dutela parte, *"goi mailakoak etortzeko sari onak banatu behar baitira. Behobia-Donostia lasterketan sari onak ema-*



Xelebrekeri ugari ikusten da egun horretan

ten basiz gero eta maila altuko korrikalariak etorri ziren gero, lasterketak duen izaera herrikoia galduko litzateke”.

“Sari onak ematen hasiz gero, lasterketaren izaera herrikoia galduko litzateke”

Bazkari ederra korritu ondoren

Lasterketa horretan irtengo diren Asteasuko bost lagunek, ezbaierik gabe, ongi pasatzeagatik hartzen dute parte. Batzuek urtean zehar palan edota futboleko jokatzeko ohitura dute, beste batzuek aldiz, lasterketa hori prestatzeko bakarrik egiten dute kirol piska bat. Behin herrietako jaiak amaitu ondoren hasten dira entrenatzen, *“astean biruzpalan aldiz edo”*. Ordu eta hogeit minututik gora amaitzen dute guztiek lasterketa, eta helburua, aurreko urteko denbora jaistea dute, *“nahiz eta beti ez dugun lortzen”*. Ibilbidea nahikoa zaila den arren, piska bat entrenatuz gero, lasterketa edozeinek amaitu dezakeela azaldu digute. *“Kriston jende pila izaten da korrikalariak animatzen, baita herriko jendea ere. Horrek asko balio du”*.

“Jende asko joaten da animatzera, eta horrek asko balio du”

Rosa Luena



Lasterketa amaitu ondoren bazkaria egiten dute Asteasuko korrikalariak nahiz animatzera joan diren lagunek, eta ziur asteasuarentzat hori dela saririk onena; lagunarteko bazkaria eta jai eguna, alegia.

Urtetik urtera korrikalari gehiago

Lasterketa horretan parte hartzeko izena emana dute aurretik Fortuna kirol elkartearen egoitzan, Donostian, edota horretarako antolatzaileek egoitu dituzten lekuetan: Beasain, Arrasate, eta beste herri batzuetan. Korrikalari bakoitzak 1500 pezeta ordaindu behar du. Iuz hamar mila korrikalari inguru irten ziren, eta aurten kopuru hori



1994ko Asteasuko taldea

gainditzea espero dute antolatzaileek. Donostiako Fortuna kirol elkarte da antolatzailea, eta lasterketa hasi zenetik egin zenetik antolatzen du. Mende honen hasieran antolatu zuten lehenengoa, 1919. urtean, hain zuzen. 1936. urtera bitartean bat edo beste gehiago antolatu zituzten, baina gerra zibila zela eta, 1941. urtera arte ez zen lasterketa gehiagorik egin. Aipatu behar da gerra aurretiko azken lasterketan eta ondorengoetan, lasterketa erreleboka korritzen zela. Hau da, lau lagunek osaturiko talde ezberdinek hartzen zuten parte, eta korrikalari bakoitzak bost kilometro korritzen zituen. Gerra ondorengo Behobia-Donostia lasterketak ez ziren urtero antolatzen, eta amaiera Atotxa futbol zelaian izaten zuten. Behobia-Donostia lasterketaren hirugarren eta egungo garaia ordea, 1979. urtean hasi zen. Ordutik gaur egunera arte urtero antolatzen da lasterketa, eta gainera, hogeit kilometroak korrikalari bakoitzak bakarrik burutu behar ditu. Garai honetako lehenengo lasterketa Joxe Migel Irazu asteasuarrak irabazi zuen, eta hurrengo urtekoa eta 1982. urtekoa herriz, Juan Mari Garin eta Pello Garin anaia zizurkildarek, hurrenez hurren. Mari Luisa Irizar andoaindarrak 1984. urtean lehenengo postua lortu zuen emakumezkoen mailan, eta ordutik gaur egunera, urte askotan irabazi du lasterketa bera. Dirudienez, Beterri bailarako korrikalariak oso gustokoa dute Behobia-Donostia lasterketa, batzuk irabazi egiten dutelako edota denbora onak lortzen dituztelako; beste askok ordea, korri egiteko aukera, eta gainera, ongi pasatzeko aitzakia dutelako. Izan ere, lasterketa herrikoien artean herrikoiena, Behobia-Donostia lasterketa da.



Asteasu

ERREBOTEKO JOKALARIAK. 1930-1940.



EZKERRETIK ESKUINERA: *Pako Aiestaran, Juanito Ezkioga, Joxe Segurola, Ramon Mintegia eta Inazio Subijana.*

Argazkia Asteasuko plazan atera zuten arren, bertako pilotariak ez dira herrikoak, Billabonakoak baizik. Horrek ordea ez du esan nahi Asteasun errebotean jokatzeko ez zenik, izan ere, Asteasu izan zen bailara honetan, eta Billabonaren jarraian noski, errebotean gehien jokatu zen herria. 1936. urteko gerra zibilaren ondorioz ala

ondorenerrebotean jokatzeari utzi zioten Gipuzkoako herri askotan; Billabona eta Zubietan izan dira ohitura horri gaur egunera arte heldu dioten herri bakarrak. Egun, mugaz bestaldeko herrietan jokatzeko da gehien errebotean, eta hilaren 27an Billabonan jokatzeko den errebote finalak hori horrela dela adierazten digu; finalera iritsi diren taldeak iparraldekoak baitira.

Argazkia Asteasuko **Andres Vitoriak** utzi digu eta bertakoen izen-abizenak ere berak esan dizkigu.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

Kaleberria 22
Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

JOSEBA
Haltzariak

Kaletxiki, 6 Fax - Telf. 59 07 61
ANDOAIN

AMAIA ARSUAGA.

Loresaltzailea Andoain eta Billabonako merkatuan.



-Hemendik gutxira Santu guztien eguna da. Obitura edo obligazioa al da egun horretan loreak erostea?

-Obitura bat dela uste dut. Egun horretan gure familiako hildakoak gogoan izaten ditugu eta hori loreak erosiz

adierazten dugu.

-Zein landare mota saltzen da gehien egun horretan? Eta urtean zehar?

-Santu guztien egunean kanposanturako zentruak, erramiak eta krisantemoak saltzen dira gehien. Urtean zehar berriz, lore mota guztiak. Udaberrian denboraldiko loreak saltzen dira; balkoirako edota jardinerako loreak, alegia. Udaran, ordea, gutxi saltzen da, opariak egiteko gehienbat. Eguberrian berriz, pazko loreak.

-Zenbat saltzen da merkatuan urtean zehar?

-Urtean zenbait egun zehatzetan lan handia izaten da: udaberrian, Santu guztien egunean, eta gabonetan asko saltzen da. Egun zehatz horietan lore ezberdinak saltzen dira.

-Konpetentzia handiko sektorea al da?

-Bai, sektore nabikoa konpetitiboa da. Ni Andoaingo eta Billabonako merkatuan egoten naiz, bakarrik, baina berrietan dauden loradenden arteko konpetentzia nabikoa handia da. Ikusi besterik ez dago Bretxako merkatuan (Donostian) izaten den lorasaltzaile kopuru altua.

-Nola hasi zinen loreak saltzen?

-Duela hiru urte lanik gabe gelditu nintzen. Orduan, lorasaltzaile bezala lanean hasteko aukera izan nuen, eta era horretan hasi nintzen lanbide honetan. Loreen mundua aurrez ongi ezagutu ez arren, beharrak erakutsita ikasi dut loreak ezagutzen eta zaintzen.

-Zer egin behar da loreak ondo mantentzeko eta bizirik denbora luzean irauteko?

-Loreak ondo mantentzeko garrantzitsuena esku ona izatea eta loreak leku egoki batean jartzea da. Gainerakoan, ez da ezer berezirik egin behar.

PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da, eta beraz, ez zaizue zaila egingo nor den asmatzea.



Saria bikaina da oraingo honetan ere: **Andoaingo Video Box bideo-klub-ak "Liberad a Willy 2 y su amuleto"** pelikula eman digu oparizat.

Irabazleak pelikula hori bere etxean, lagunekin ikusteko aukera izango du.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15,1 eskubia. 20140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

VIDEO BOX

VIDEO - TV - HIFI

Azken nobedadeen salmeta eta alokairu denda

PANASONIC
TECHNICS
HITACHI

JVC
PHILIPS
GRUNDIG

Nafarroa plaza, 4 - ☎ 59 27 05
ANDOAIN

MUSIKA**ANDOAIN**

DON GELASIO ARANBURU-REN OMENALDIKO ekintzak.
Urriak 25: "Schola Gregorianista Donosti Ereski" abesbatzaren kontzertua. San Martin parrokian, arratsaldeko 20.00etan.

Urriak 27: Andoaingo Alberto Agirre Abesbatzak kantatuko duen Meza Nagusia. San Martin parrokian, goizeko 11.00tan.

BILLABONA

Urriak 26: Fernando Gonzalok eskainitako organu kontzertua. Jesusen Bihotza parrokian, arratsaldeko 20.00etan.

ANTZERKIA**ANDOAIN**

Azaroak 23: Tanttaka taldearen "El florido Pensil" antzezlan La Salle antzokian.

HITZALDIAK**ADUNA**

Azaroak 6: Intsumisioari buruzko hitzaldia Adunako kultur aretoan, arratsaldeko 20.30etan.

ANDOAIN

Azaroak 15: EAJ-PNV-k antolatuta "Politika Plazara" hitzaldi egitarauari hasiera emango zaio. Hitzaldia arratsaldeko 20.00tan izango da Urigain Kultur Etxean.

BESTE**ANDOAIN**

Azaroak 7: "Leyçaur-E" liburua-
ren aurkezpena. Urigain kultur
etxean, arratsaldeko 19.30etan.

IBILALDIAK**ANDOAIN**

Urriak 27: Leizaur zikloturismo taldeak antolatuta, 62 km-ko Andoain-Zaldibia ibilbidea. Irteera Danena taberna aurrean. Izena emateko ordutegia 9.30tik 11tara. Horren arduraduna Ramon Peral izango da.

Azaroaren 10tik 17ra; XXXIII MENDIZALE ASTEA.

Azaroak 10: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Bidasoa arroan zehar 8. ibilbidea eta azkena: Eskaseko Biandiz eta Aiako harri irteera.

Azaroak 17: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta babarrun jatea.

HAURRENTZAKO IBILALDIAK ANDOAIN

Urriak 27: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Buruntzara, irteera. Goizerako bakarrik.

Azaroak 10: Abailarriko haitzak ikusteko irteera (goizez).

BILLABONA

Azaroak 1, 2 eta 3: Billabonako Aizkardi mendi taldeak antolatuta hiru egunetako ibilaldia, 3 zatitan banatuta: Huizi, Belate eta Burgetera ibilaldia.

ERAKUSKETAK**ANDOAIN**

Urriak 22/25: Gipuzkoako Ur Kontsortzioak antolatutako "Kaiyo Ura" erakusketa ibiltaria ikusgai.

MERKATU TXIKIA**ADUNA**

Gazte-logela bateko altzariak salgai. Telf: 690823.

LEHIAKETAK

Leioako XI. Bertso paper lehiaketa. Euskal Herriko edozein biztanlek har dezake parte. Gaia librea, eta bertsoak jatorrizkoak behar dute izan.

X. Argazki lehiaketa. Egile guztiek har dezakete parte. Gai librea. Lanak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta zerupean eginak izan behar dute.

X. Diapositiba lehiaketa. Edo-nork har dezake parte. Gaia librea eta lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

III. Bideo-Lehiaketa. Egile guztiek parte har dezakete, mugarik gabe. Gaia librea eta lanak jatorrizkoak; inongo lehiaketatan saritu gabeak izan behar dute.


Lan guzti horiek aurkezteko epea azaroaren 8an amaituko da, eguerdiko ordubietan, bideo-lehiaketarena ezik, azken hori eguerdiko hamabietan bukatuko da.

Lanen aurkezpenari dagokionez, posta ziurtatu bidez bidali daitezke helbide honetara:

LEIOAKO KULTUR ARETOA,
Koordinazio kulturala.


Sabino Arana kalea, 67B. Tel. 4637088

48940 LEIOA (Bizkaia).

KOMIKIA

JOKA EZAZU GUREKIN EGUBERRIETAKO LOTERIAN

ERNE!: abenduaren
9a arte salgai!



ABERASTU BIZILAGUNA!

foto color

ERREBELATUA ORDU EAN

Zure argazki
denda



JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - T 59 43 32
20.140 ANDOAIN

Istuitza Garden

Karrika 9 - ANDOAIN
☎ 59 24 48

ORDUTEGIA:
9:00 - 13:00 — 16:30 - 20:00

- Lore naturalak eta artifizialak
- Landareak
- Lorontziak
- Lurra
- Ehizatxakurrentzako janari berezia

Santu guztien egunerako loreak



Taleres Mendi S. L.

BURDINEZKO PIEZEN EGINTZA, PLANUEN ARABERAKOA

PIEZA HIDRAULIKOAK ETA NEUMATIKOAK.

MEKANIZAZIOA

Urrietako bidea, z/g.

☎ 59 04 52
59 05 08

ANDOAIN



BRONTE ZENTRU OPTIKOA

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU KONTAKTU LENTEAK GORRENTZAKO APARAILUAK

ESKAINNTZA BEREZIA
JUBILATU eta PENTSIONISTENTZAT URIA eta AZAROAN.

ARMAZOIA eta KRISTALAK

6.950 Pta.

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA



BRONTE ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK, PROTESIAK eta PLANTILAK TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
RPS. n° 53/96



GNAI oinetakoak

ume eta gazteentzako oinetakoak

ZABALDU BERRIA

Kale Nagusia 12 - Bi Billabona
☎ 69 12 61